



**Herri-Kontuen Euskal  
Epaitegiaren Urteko  
Oroit-idatzia**

**Memoria Anual del Tribunal  
Vasco de Cuentas Públicas /  
Herri-Kontuen Euskal Epaitegia**

**2006ko ekitaldia  
Ejercicio 2006**





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>I. SARRERA.....</b>	<b>5</b>
<b>II. FISKALIZAZIO EGITEKOA .....</b>	<b>6</b>
II.1 LANERAKO PLANA .....	7
<b>III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK .....</b>	<b>10</b>
III.1 EUSKO LEGBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK .....	10
III.2 KANPO HARREMANAK.....	11
<b>IV. HKEE-REN ZERBITZURAKO LANGILERIA.....</b>	<b>13</b>
<b>V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK.....</b>	<b>14</b>
<b>VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2006-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK .....</b>	<b>15</b>
- Urteko Kontuez besteko Auditoretza Txostena .....	16
- 2006ko ekitaldiaren urteko kontuak .....	17
- Egoeraren Balantzea eta Galdu Irabazien Kontua.....	19
- Ibilgetua, Aurrekontu Plantilla.....	20
- Aurrekontu Aldaketak, Urteko Kontuei Oharrak .....	20
<b>VII. KUDEAKETAREN INFORMAZIOA, 2006-KO EKITALDIA.....</b>	<b>21</b>
VII.1 ORDUEN BILAKAERA.....	21



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>23</b>
<b>II. ACTIVIDAD DE FISCALIZACIÓN</b> .....	<b>24</b>
II.1 PLAN DE TRABAJO .....	25
<b>III. RELACIONES CON OTRAS INSTITUCIONES</b> .....	<b>28</b>
III.1 RELACIONES CON EL PARLAMENTO VASCO, JUNTAS GENERALES Y CONSEJO SOCIAL DE LA UPV .....	28
III.2 RELACIONES EXTERNAS .....	29
<b>IV. PERSONAL AL SERVICIO DEL TVCP</b> .....	<b>31</b>
<b>V. DESARROLLO TECNOLÓGICO Y PROCEDIMIENTOS</b> .....	<b>32</b>
<b>VI. CUENTAS ANUALES DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS DEL EJERCICIO 2006</b> .....	<b>34</b>
- Informe de auditoria independiente de las cuentas anuales .....	35
- Liquidación del presupuesto 2006 .....	36
- Balance de Situación y Cuenta de Pérdidas y Ganancias.....	38
- Inmovilizado, Plantilla Presupuestaria .....	39
- Modificaciones presupuestarias, Notas a las Cuentas Anuales.....	39
<b>VII. INFORMACIÓN DE GESTIÓN AÑO 2006</b> .....	<b>40</b>
VII.1 EVOLUCIÓN HORAS.....	40

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 14a

Vitoria-Gasteiz, 14 de junio de 2007



## I. SARRERA

Euskal Herriko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileen Legeak agintzen du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera ekonomikoa kontrolatuko duela, Autonomia Erkidegoaren Erakunde Komunen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen Harremanen Legea izanik horren oinarritzko eraketa zehazten duena; honela, bada, Eusko Legebiltzarraren Legea izango da sortu eta arautuko duena bere egitekoen osaera, antolamendua eta prozedura fiskalizatzaile eta jurisdikzionala.

Premisa hauek abiaburu hartuta, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak Herri-Kontuen Euskal Epaitegia sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko atal modura, zuzenean Eusko Legebiltzarraren baitako dena. Eskumenen esparruan euskal sektore publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako arribideen organo fiskalizatzaile goren izaera du eta Autonomia Erkidegoan gauzatzen ditu egitekoak, Eusko Legebiltzarrak eskuordetuta

Epaitegia Legebiltzarraren Osokoak hautatutako zazpi kidek osatzen dute, bertako kideen erabateko gehiengoaren aldeko botoarekin; Epaitegiaren egitura honako atal hauek osatzen dute:

- Lehendakaritzak
- Lehendakariordetzak
- Osokoak
- Idazkaritza Nagusiak

Epaitegiaren kontrol esparru eta zabalak euskal sektore publikoa osatzen duten Erakunde guztiak besarkatzen ditu, hau da:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Autonomoen, Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoen eta Sozietate Publikoen kontuak.
- Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusi eta Foru Aldundiak eta horien meneko Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Toki Entitateak eta horien meneko Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Aurrez zerrendatutako enteetatik eratorritako diru edo baliabide publikoak administratu edo erabiltzen dituen bestelako zeinahi erakunde.

Halaber, Epaitegiaren kontrola ere laguntza ekonomikoak eskuratzen dituen bestelako zeinahi pertsona fisiko zein juridikoren aribidera hedatzen da, hala nola, dirulaguntzak, kredituak, abalak eta bestelako bermeak; baita, euskal sektore publikoak eman diezazkion salbuespen eta hobari fiskal zuzen eta pertsonalak eskuratzen dituenaren aribidera ere. Kontrolak laguntzei erabilera eta norako egokia ematen zaiela egiaztatuko du.



## ANTOLAMENDUA

Epaitegia bere aribidea garatzeko fiskalizazio alorretan dago banatua. 2002ko ekitaldian zehar eta Epaitegiaren kideek berri izanaren ondorioz, Osokoak lan esparruen zatiketa berria oniritzi zuen; baita, Kontseilari bakoitzak esparru bakoitzaren gainean zuen erantzukizuna ere; hona hemen alorren arabeko zati-banaketa:

- Lehendakaritza: Fiskalizazio ez errepikariak, programatu gabeak eta erakundeartekoak.
- Lehendakariordetza: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa Orokorra, Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
- Erakundeen atala: Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakundeen Administrazioa.
- Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 20.000 biztanletik gorako udalak eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa.
- 20.000 biztanletik beherako udalak, Mankomunitateak eta Txosten Diagnostiko Orokorra.

Banaketa honen helburua lanak sektore homogeneoen arabera egitea da, erakundeen izaera abiaburu hartuta; baita, lan bolumena aintzat hartuta, auditoria taldeak egoki izendatzea ere.

## II. FISKALIZAZIO EGITEKOA

Epaitegiaren Legearen 9. artikuluari jarraiki, egiteko fiskalizatzaileak helburu du euskal sektore publikoa osatzen duten Erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioa antolamendu juridikoari egokitzen zaiola egiaztatzea. Fiskalizazioak, orobat, dirulaguntzen helburua bete den egiaztatuko du.

Erakundeek igorritako Kontu Orokorrak abiaburu hartuta, ohiko izaerarekin txostenak onesten dira, honako hauei dagozkienak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuei buruzko txostena.
- Hiru Lurralde Historikoetako Kontu Orokorraren txostenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Entitateen Kontuei buruzko txosten orokorra.



Honez gain, berariazko txostenak hezuramaitzen dira, egiteko fiskalizatzailea gainerako euskal sektore publikora hedatzearren; hauek, Epaitegiaren beraren ekimenez egiten dira, edota, Eusko Legebiltzarrak edo Lurralde Historikoen Batzar Nagusiek eskatuta.

## II.1 LANERAKO PLANA

Lanerako Plana hezuramaitu aurretik, HKEEK planean barne hartzeko diren lehentasunezko eskabideak jaso eta aztertu ditu, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako dagozkien batzordeek eskatutakoak.

Epaitegiaren Osokoak 2005eko abenduaren 23ko bilkuran 2006ko aldirako Lanerako Plana onetsi zuen. Planak, abian dauden eta onesteko dauden jarduerak besarkatzen ditu, aurreko planei dagozkienak.

### Lehendakaritza

- Santa Maria Katedrala Fundazioa-Fundación Catedral Santa Maríari emandako funts publikoei buruzkoa txostena, 1999-2003. (06/03/03ko Osoko bilkura).
- Bilboko Erruki-etxe Santuaren fiskalizazioa, 2002. (06/03/23ko Osoko bilkura).
- Bilbao Urban Circuit, SLren ekonomia-finantza eta legezketasunaren fiskalizazio txostena, 2005. (06/12/19ko Osoko bilkura).
- Bilboko Erakustazoka desegitea eta Bilbao Exhibition Centre sortzea. Instalakuntzak eraikitzeke gastuen analisia 2005eko abenduaren 31ra arte. (06/12/26ko Osoko bilkura).
- Euskadiko Erkidegoko Estatutu Politiko Berriaren Proposamenaren gastuen fiskalizazioa (Lanerako planean barne hartua, Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta). (07/04/18ko Osoko bilkura).
- Euskadi Fundazioari laguntzak, 2004-2005. (Behin-behineko onespena alegazioetarako 07/04/23).
- 2003-2005eko Itunpeko Zerga kontzeptuan aurrekontuaren gaineko desbideraketen arrazoiak. Arrazoen eta horiek gastuak finantzatzeko erabiltzearen zulentasuna.
- Guggenheim. HKEEK mamitutako azken txostenaz geroztik gauzatutako arte erosketen legezketasunaren analisia. Guggenheim Fundazioaren jardueraren fiskalizazioa, 2005. (07/06/14ko Osoko bilkura).
- Oihanberri SA, sozietate publikoa 2004-2005. (Lanerako planean barne hartua, Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta).



### Lehendakariordetza

- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2004ko Administrazio Orokorraren likidazioaren fiskalizazioa. (06/06/06ko Osoko bilkura).
- Frankismoaren biktimei laguntza emateko Programaren legezkotasunaren analisia. (06/11/03ko Osoko bilkura).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2005eko Administrazio Orokorraren likidazioaren fiskalizazioa. (Behin-behineko onespena alegazioetarako 07/06/14an).
  - "Baliabideak eta erakunde konpromisoak" eta "Hainbat sail" aurrekontu-atalen analisia, 2005.
  - Zehapen espediente bitartez sarrera propioen kudeaketaren analisia, 2005.
- Alokairuko etxebizitzaren Bizigune programa: legezkotasun, publizitate eta sarbide baldintzen analisia, 2005.

### Erakundeak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen administrazioa: Erakunde Autonomo Administratiboak, 2003. (06/11/03ko Osoko bilkura).
- EITB Taldaren ondasun, hornigai, zerbitzu eta langileen kontratazioaren analisia (Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca, SA; Euskal Telebista- Televisión Vasca, SA; Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, SA; Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, SA eta EITBNET, SA), 1999-2003. (06/11/17ko Osoko bilkura).
- EA Eren Erakundearen Administrazioaren Kontuaren Fiskalizazioa, 2004, sozietate publikoak, enteak eta erakunde autonomoak barne hartzen dituela. (Behin-behineko onespena alegazioetarako 07/06/14an).

### Arabako eta Bizkaiko Foru Administrazioa

- EA Eren Lurralde Historikoetako Foru alor publikoaren aurrekontu eta finantza egoeren azterketa konparatiboa, 2003. (06/11/03ko Osoko bilkura).
- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien 2004ko Aurrekontu Likidatuaren banaketa funtzionala, eta horren kontsolidatua.
- Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2004ko ekitaldiko fiskalizazioa. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen 2004ko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa. (06/12/19ko Osoko bilkura).
- Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2005eko ekitaldiko fiskalizazioa. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen 2005eko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2004ko ekitaldiko fiskalizazioa. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen 2004ko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa. (06/11/03ko Osoko bilkura).





- Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2005eko ekitaldiko fiskalizazioa. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen 2005eko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa. (Behin-behineko onespena alegazioetarako 07/014an).

### **Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea**

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldia. (06/11/03ko Osoko bilkura).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldia. (Behin-behineko onespena alegazioetarako 07/04/23an).
- Euskal Herriko Unibertsitateen Finantzaketa Publikoaren analisia, 2000-2002.

### **Toki Administrazioa, 20.000 biztanle baino gehiago duten Udalak**

- Bilboko Hiltegia, SAren fiskalizazio txostena, 2004. (06/06/06ko Osoko bilkura).
- Vitoria-Gasteizko udala: 2000ko urtean onetsitako haur eskolen giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren eta 2003ko urtean onetsitako giza baliabideak arrazionalizatzeko programa. (06/03/23ko Osoko bilkura).
- Lurraren Udal Ondarea (zeharkako lana Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan).
- Bilboko Udalaren Fiskalizazioa, 2004, bere sozietate eta erakunde autonomoak barne hartuta. Bilboko Udalak 2000 eta 2004 urteen bitartean izenpetutako hirigintzako hitzarmenak. (06/12/19ko Osoko bilkura).
- Donostiako Udalaren Fiskalizazioa, 2005, bere sozietate eta erakunde autonomoak barne hartuta. Donostiako Udalak izenpetutako Hirigintzako Hitzarmenak, 2005eko ekitaldian eragina izan dutenak. (07/06/07ko Osoko bilkura).

### **20.000 biztanle baino gutxiago duten Udalak**

- Okondoko Udalaren fiskalizazio txostena, 2003. (06/01/27ko Osoko bilkura).
- Etxebarriko Udalaren eta Etxebarriko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren fiskalizazioa, 2004. (07/02/23ko Osoko bilkura).
- Euskal Autonomi Erkidegoaren 2004ko ekitaldiko Toki Entitateen Diagnostikoa. (07/02/23ko Osoko bilkura).
- EAEko 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalen zeharkako analisia. (06/04/03ko Osoko bilkura).
- Berrizko udalaren fiskalizazio mugatuaren txostena, 2002-2003-2004. (06/12/16ko Osoko bilkura).
- Lasarte Oriako udalaren fiskalizazioa, 2004. (07/02/23ko Osoko bilkura).



- Otxandioko Udalaren, Otxandioko Egoitza Erakunde Autonomoaren eta Otxandio XXI Sozietate Publikoaren fiskalizazioa. (06/07/24ko Osoko bilkura).
- Lemoako Udalaren fiskalizazioa, 2004.
- Euskal Autonomi Erkidegoaren 2005eko ekitaldiko Toki Entitateen Diagnostikoa.

### III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

#### III.1 EUSKO LEGEBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK

Epaitegiak garatzen duen egiteko fiskalizatzailearen ondorioz, azaleratutako legezko zein kontularitzako lege hausteak eta/edo okerreko aribideak jasotzen dituen txostena mamitzen du; halaber, fiskalizaziogai diren erakundeen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ematen ditu.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei, fiskalizaziogai izan diren Erakundeei eta Gobernuari, Foru Aldundi eta Udalei igortzen zaizkie.

2006ko urtean zehar, Erakunde hauen aurrean egindako agerraldiak ondotik adierazitako hauek izan ziren:

- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko otsailaren 1a), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean, Epaitegiak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena azaltzeko, 2003ko ekitaldiari dagokiona.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko otsailaren 15a), Bizkaiko Batzar Nagusien Ekonomia eta Ogasun Batzordearen aurrean, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2003ko kontu Orokorrari buruzko azalpenak emateko.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko otsailaren 17a), EHUren Gizarte Batzordearen aurrean, EHUren 2003ko ekitaldiaren fiskalizazioari buruzko argibidea emateko.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko martxoaren 28a), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean, Joana Madrigal Jimenez andreak eskatuta, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren osokoak 2006rako onetsitako lanerako planaren berri emateko.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko martxoaren 28a), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean, Antonio Damborenea Basterrechea jaunak eskatuta, 2006ko lanerako planaren berri eman eta Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenak egitea saihesteko arrazoiak azaltzeko, Ibarretxe Planaren gastuen fiskalizazioa barne dela.



- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko martxoaren 28a), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean, Epaitegiak eskatuta, Eusko Legebiltzarraren eskariaren ondoren mamitutako txostena aurkezteko, politika publikoen balio-neurketari buruzko proposamen ez legezkoaren eztabaida ondoren.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Kontseilari den Rafael Iturriaga Nieva jaunaren agerraldia, (2006ko ekainaren 15a), epaitegi horretan garatzen duen jarduera azal dezan.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariordearen agerraldia (2006ko irailaren 27a), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontu Orokorraren 2004ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena azaltzeko.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren agerraldia (2006ko azaroaren 28a), Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen egoitzan egindakoa, Aurrekontu Araubidearen Legegintzazko Dekretua aldatzea aztertzeari buruzkoa.

### III. 2 KANPO HARREMANAK

#### Kanpo Kontrolerako Organoak

1995az geroztik hainbat lankidetzaz hitzarmen izenpetu dira Kanpo Kontrolerako Organoekin (KKO/OCEX) eta horien bitartez guztien arteko harremanak finkatzen dira eta prestakuntza eta hedapen egitekoak zehazten. Horretarako, jarraipen batzorde bat sortu zen, prestakuntza planak onesten dituen.

Halaber, merezi du Auditoria Publikoa aldizkariaren argitarapen bateratua azpimarratzea, urtez urte sendotzen ari dena, KKOen arteko lotura eta hedapen gune dena. Honen ondorioz, urtero Auditoría Pública Aldizkarik Kazetaritza Saria banatzen du; honela, bada, 2005eko edizioari zegokion saria 2006ko martxoaren 30ean banatu zen Sevillan.

KKOen arteko harreman honetan, urtean zehar interes komunekoa aztertzeko bilerak egiten dituzte presidenteen artean eta 2006ko ekaineko bileran, Madrilen egin zena, Presidenteen Konferentzia eratzea onartu zen; konferentzia honen lehenengo bilera 2006ko urrian Iruñean egin zen eta bertan Lehendakariak esku hartu zuen.

Era berean, Kontuen Epaitegiaren toki alorrean Koordinazio batzordearen eta KKOen arteko hainbat bilera egiten dira; bertan esku hartzen dute HKEEren toki entitateen kontseilariak.

2006ko martxoan Sevillan, Andaluziako Kontuen Kontseiluarekin lankidetzan, Sektore Publikoaren Auditoretzako Nazio mailako II. Kongresua egin zen eta bertan Osokoaren hainbat kidek eta Epaitegiko hainbat funtzionariok esku hartu zuten.



2006ko maiatzean, Osokoaren hiru kide Galiziako Consello de Contasek antolatutako jardunaldi teknikora joan ziren "Kanpo Kontrol Publikoa XXI. Menderako".

Osokoaren kide batek Catalunyako Sindicatura de Comptesek egoitzaren inaugurazioa zela eta antolatutako ekintzetan esku hartu zuen, 2006ko uztailean.

Osokoaren hiru kide Maspalomasko Udako Unibertsitateak antolatu eta Kanarietako Audiencia de Cuentasen babesletza zuen ikastarora joan ziren, "IV. Administrazio Publikoen Kanpo Kontrola: Politiken Balio-neurketa", 2006ko uztailearen 3tik 6ra bitartean egindakoa.

HKEEk Kanpo Kontrolerako Organoen I. Teknologia Foroa antolatu du eta bertan esku hartu, hainbat hizlariekin, 2005eko irailearen 14 eta 15ean Valentzian egin zena; bertan, teknologia berrien esparruan izan duen bilakaera erakutsi eta inguru informatikoen fiskalizazioari dagokionez organo hauen etorkizuna eztabaidatu du.

## Kontuen Epaitegia

Epaitegiak onesten dituen txosten guztiak Kontuen Epaitegiari igortzen zaizkio, eta aldi berean honek Autonomia Erkidego, Toki Erakunde eta Unibertsitate Publikoen multzoari dagokionez Gorte Nagusietan aurkezten dituenetan barne hartzen dira.

Gainera, Kontuen Epaitegiak kontularitzako erantzukizuna auzirateko eskumena du eta aukera du aldez aurreko instrukzio atala autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoetan eskuordetzeko.

Eskuordez, Kontuen Epaitegiak abian jarritako ondoko espedienteen aldez aurreko instrukzioa egitea onetsi da

- Aldez aurreko jarduketak 131/05 zk., Arabako Lurralde Historikoa, Erakundeen Administrazioaren Kontu Orokorra, 2002, Naturgolf, SAren kudeaketari buruzko ustezko irregulartasunen ondorioz, txostenaren 1.2.1 atalean –23. orrialdean jasotakoak. Instrukzioa 2006ko uztailearen 25eko Auto bidez artxibatuta amaitu zen, alkantzeagatiko kontularitzako erantzukizunik ez zegoelako.
- Aldez aurreko jarduketak 132/05 zk., Arabako Lurralde Historikoa, Erakundeen Administrazioaren Kontu Orokorra, 2002. Baños de Ebroko iparraldean argiteria instalatzeko espedientearen ustezko irregulartasunen ondorioz, II.2.6 atalean jasotakoa, txostenaren 31. orrialdean. Instrukzioa 2006ko ekainaren 8ko Autoa artxibatuta amaitu zen, alkantzeagatiko kontularitzako erantzukizunik ez zegoelako.

## Nazioarteko harremanak

Aipatzekoa da Europako Kontuen Epaitegiarekin mantentzen diren harreman bideak; honela, bada, 2006ko urrian honek Europako Erkidegoko hainbat erakunderen antolamendu eta funtzionamenduari buruz antolatutako VI. Mintegian HKEEren bi funtzionariok esku hartu zuten.



2006ko maiatzean, EURORAik zor publikoaren fiskalizazioaren gaineko Nazioarteko Konferentzia antolatu du, Wroclaw, Polonian egin dena, eta bertan Osokoaren kide batek esku hartu zuen.

2006ko azaroan, EURORAI eta Ingalaterrako Audit Commission-ek ondoko mintegi hau antolatu dute: "Arriskuak aztertzea zuzendutako fiskalizazioa planifikatu eta egitea, auditoretzako nazioarteko arauen arabera (ISA)"; mintegia Ingalaterrako Portsmouth-en egin zen eta bertan Osokoaren kide batek esku hartu zuen.

## Komunikabideekiko harremanak

Gure txostenak behin onartu eta fiskalizatutako erakundeetara igorri ondoren, web orrian argitaratzen ditugu, honako helbide honetan: [www.tvcp.org](http://www.tvcp.org)

Halaber, eta komunikabideekiko harremanak indartzeko, onartutako eta fiskalizatutako erakundeei igorritako txostenak, Epaitegiaren dagokion prentsa ohar laburtuarekin batera komunikabide guztiei igortzen zaie posta elektronikoko bitartez.

Web orriari dagokionez, txostenak aurkitzeko modulua berri du, gaitasun eta malgutasun handiagoa emanez. Irigarritasun handiagoa izango duen web orri berria mamitzen ari dira, hiritarrek HKEEren ezagutza handiagoa izatea bideratuko duena.

## IV. EPAITEGIAREN ZERBITZURAKO LANGILERIA

2006ko ekitaldian zehar, lanpostuen zerrenda aldatu da Epaitegiaren Osokoaren erabaki bitartez, Epaitegiko Lehendakariaren ebazpen bidez argitara emana.

Epaitegiaren zerbitzura diharduen langile kopurua 81 pertsonakoa izan da urte amaieran, honako maila hauetan zati-banatuak:

Goi karguak.....	8
Behin-behineko langileak.....	10
Auditoreak .....	38
Letratuak .....	7
Administrazioko langileria.....	18

2006ko urtean zehar, Epaitegiak langileriaren prestakuntzarako guztira 1.345 ordu erabili ditu, kanpo erakundeek antolatutako ikastaroetan, hizkuntzen ikaskuntzarako orduak kontatu gabe.



Ikastaroen berariazko aztergaiak honako hauek izan dira: alderdi ekonomiko, kontularitzako eta aurrekontuzkoak, kontratazioa, ogasun publikoa, politika komunitarioak eta aplikazio informatikoak.

Prestakuntzan erabilitako guztizko aurrekontua 78.489 eurokoa izan zen; honek 2006ko ekitaldian, "Ondasun erosketa eta zerbitzuak" gastuen 2. kapituluan egindako gastu guztien gainean % 8,7 egin du.

2006ko urtean zehar, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak eskuratzera emandako orduak 2.266 izan dira.

## V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK

HKEEk 2005ean ezarritako auditoretzako baliabide informatikoen erabilera sendotu du 2006ko ekitaldian zehar, gaur egun "paperik gabeko auditoria" errealitate bilakatu dela.

Lan egiteko molde berri honek ekarri dituen aldaketez baliatuz fiskalizazio prozedurak aztertu ditugu eta "Fiskalizazio prozeduren eskuliburua" onartu. 2007ko urtarrilean argitara emandako eskuliburu honek ohiko lan programak barne hartzen ditu eta auditoria publikoarekin lotutako pertsona eta entitateentzat lanabes erabilgarri bihurtu da.

Barne komunikazioari dagokionez, intranetaren edukia areagotu da eta HKEEk jaulkitako txosten guztiak ezezik, Osokoaren eta Auditoretzako Batzorde Teknikoaren dokumentazio historikoa ere txertatu zaizkio. Intraneta, gainera, eguneroko lanean eta Epaitegiaren atalantzat ezinbesteko komunikazio tresna modura kontsolidatu da.

Kudeaketa eta proiektuak kontrolatzeko modulua martxan jarri da, abian dauden lanen jarraipenerako baliabide gisara eta egiteko ezberdinei denborak ezarri ahal izateko.

Orobat, sarrera eta irteerak erregistratzeko informatika programa berritu da, eskagarri diren eskaera berrietara egokituz, dela ikuspuntu teknologikotik, dela eraginkortasunaren ikuspegitik ere.

Halaber, 2006ko ekitaldian zehar HKEEk bere sistemak aztertu ditu Datuak Babesteko Lege Organikora egokitzeko; horretarako, Segurtasuneko Agiria onetsi du eta hori betetzeko beharrezko diren ekintza zuzentzaileak gauzatu ditu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia


Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2006-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



Z & B Auditores, Consultores  
de Entidades Públicas

- **INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE LAS CUENTAS ANUALES** -

**Al Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas - Herri-Kontuen Euskal Epaitegia:**

1. Hemos auditado las cuentas anuales del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS - HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA, que comprenden el balance de situación al 31 de diciembre de 2006, la cuenta de resultados, liquidación presupuestaria del ejercicio, resultado del ejercicio económico, liquidación de presupuestos cerrados, operaciones extrapresupuestarias, cuenta de tesorería y notas explicativas correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de la Secretaría General del Tribunal. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.
2. La Secretaría General presenta, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance y de la cuenta de resultados, además de las cifras del ejercicio 2006, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2006. Con fecha 12 de abril de 2006 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2005, en el que expresamos una opinión sin salvedades.
3. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2006 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS - HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA al 31 de diciembre de 2006 y de los resultados de sus operaciones y de los ingresos y gastos de la liquidación del presupuesto correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con principios y normas contables establecidos por el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

**Z & B Auditores, Consultores de Entidades Públicas, S.L.**  
Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1354

Fdo.: Pedro Odriozola Zubia

Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2007

Vicente Goikoetxea, 6 - 6ª planta • 01008 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 123 264 • Fax: 945 123 266 • E-mail: vitoria-gasteiz@zbcconsultores.com

Plaza de Pinares, 1 - 1ª planta • 20001 San Sebastián  
Tel.: 943 326 873 • Fax: 943 292 221 • E-mail: donostia@zbcconsultores.com

Gran Vía, 81 - 3ª puerta 6 • 48011 Bilbao  
Tel.: 944 666 622 • Fax: 944 666 624 • E-mail: bilbao@zbcconsultores.com





## HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA 2006-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK

### 1. 2006-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Mila euro

SARRERAK	___Aurrekontua___			Likitat.Kobrantz. Eskub.	Kobra- tzeko	% Exek.	
	Hasiera	Aldak.	Behin-b.				
4.- Transf. eta dirulag. arruntak ....	6.162		6.162	6.162	6.162	0	100
5.- Ondare sarrerak.....	22		22	62	29	33	28
7.- Transf. eta kapital dirulag. ....	191		191	191	191	0	100
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	107		107	35	35	0	32,7
<b>Guztira.....</b>	<b>6.482</b>		<b>6.482</b>	<b>6.450</b>	<b>6.417</b>	<b>33</b>	<b>99,5</b>

GASTUAK	___Aurrekontua___			Aitort. Ordaink. obligaz.	Ordain- tzeko	% Exek.	
	Hasiera	Aldak.	Behin-b.				
1.- Pertsonal gastuak .....	5.224		5.224	4.976	4.966	10	95
2.- Ondasunak eta zerb. ersotea ...	1.058		1.058	900	842	58	85
4.- Transf. eta dirulag. arruntak ....	9		9	1	1	-	11
6.- Inbertsio errealak.....	149		149	111	98	13	74,5
8.- Finantza aktiboen aldaketa .....	42		42	33	33	-	78,6
<b>Guztira.....</b>	<b>6.482</b>		<b>6.482</b>	<b>6.021</b>	<b>5.940</b>	<b>81</b>	<b>92,9</b>

### 2. AURREKONTU ITXIAK Mila euro

	Hasiera	Baliogabetz.	Diruzaintza	Amaiera
Itxitako sarrerak .....	17	-	17	-
Itxitako gastuak .....	75	-	75	-



3. AURREKONTUAREN EMAITZA	Mila euro
Likidatutako eskubideak.....	6.450
Aitortutako obligazioak.....	<6.021>
Itxitako gastuen balio gabetzea.....	-
<b>Aurrekontuaren emaitza</b>	<b>429</b>

4. DIRUZAINZA GELDIKINA: ALDAKETA	Mila euro
Diruzaintza geldikina 05.12.31n.....	1.17
+ Aurrekontuaren emaitza.....	429
<b>Diruzaintza Geldikina 06.12.31n</b>	<b>1.536</b>

5. DIRUZAINZA GELDIKINA	Mila euro
Diruzaintza .....	1.953
Aurrekontuaren zordunak.....	33
Aurrekontuaren hartzekodunak .....	(81)
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	(2)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(367)
<b>Diruzaintza Geldikina 06.12.31n</b>	<b>1.536</b>
Inbertsioei lotutako DG.....	255
Erabilera orokorrerako DG .....	1.281



## 6. 2006ko abenduaren 31n EGOERAREN BALANTZEA

Mila euro

AKTIBOA	06 aben.	05 aben.	PASIBOA	06 aben.	05 aben.
<b>IBILGETU MATER. ETA INMATER.</b>		<b>3.208</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>	4.201	4.024
Makineria, instalakuntzak eta tresneria	3.118	3.118	Ondarea .....	3.710	3.587
Abian dauden instalak_.....	0	0	Ekitaldiaren aurrek. emaitza	314	123
Garraioak.....	166	219			
Higigarriak.....	363	360			
Bulegogaiak.....	62	60	<b>GERORATUTAKO SARRERAK</b>		
Informatika ekipoak.....	400	370	Kapital transferentziak.....	175	153
Ibilgetu inmateriala.....	16	28			
- Pilatutako Amortizazioa...	(1.256)	(1.117)			
<b>ZORDUNAK</b>	83	70	<b>HARTZEKODUNAK</b>	416	416
Aurrekontu arrunta.....	33	16	Aurrekontu arrunta.....	75	89
Aurrekontu itxiak.....	0	0	Aurrekontu itxiak.....	0	0
Aurrekontuz kanpokoak ....	(2)	0	Aurrekontuzko erak. hartzek. ....	337	323
Mailuengatik zordunak.....	52	54	Aurrekontuz kanpokoak.....	4	4
<b>DIRUZAINZTA</b>					
Bankuak.....	1.953	1.507			
<b>Aktiboa</b>	<b>4.905</b>	<b>4.615</b>	<b>Pasiboa</b>	<b>4.905</b>	<b>4.615</b>

## 7. 2006. EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

GASTUAK	06 urtea	05 urtea	SARRERAK	06 urtea	05 urtea
Langile gastuak.....	4.741	4.558	Transferentzi arruntak EAE.....	6.011	5.085
Alokatzeak .....	180	242	Kapital transferentz. EAE(doiketa)	111	1.041
Konponketak eta mantenua	88	73	Interesak.....	38	32
Zerbitzu profesional askeak.	22	88	Diruzaintza Geldikina.....	7	0
Aseguru sariak.....	26	35			
Harreman publikoak etaprot.	33	24			
Hornigaiak.....	37	32			
Bulegoko materiala.....	35	59			
Liburuak eta argitalpenak ..	26	24			
Garbiketa .....	129	111			
Segurtasuna .....	1	2			
Ibilgail. eta egonal. gastuak	92	112			
Komunikazioak.....	51	60			
Informatika materiala.....	41	18			
"Auditoría Pública" Aldizk..	5	5			
Bilerak, konf. eta kurtsoak .	78	47			
Beste erakundeko zerbitzuak	0	9			
Artxibo zerbitzuak .....	0	31			
Bestelako zerbitzuak.....	21	22			
Tributuak.....	2	4			
Irab. asmo. gab. erak. trans.	1	6			
Amortizaz. zuzkidurak .....	204	231			
Aurr. ek. it. kap. tran.(irizpide)	0	0			
Ek. itxietako sarrerak baliogab.	0	2			
Galerak higiezinduan.....	77	50			
Maileguen erregularizazioa	0	0			
<b>Gastuak</b>	<b>6.158</b>	<b>5.853</b>	<b>Sarrerak</b>	<b>6.335</b>	<b>6.167</b>
			<b>Ondare Emaitza</b>	<b>177</b>	<b>314</b>



## 8. IBILGETUA

Mila euro

	___05 abendua___			___Urtea___			___06 abendua___		
	Gordina	Amort.	Garbia	Berria	Bajak	Amort.	Gordina	Amort.	Garbia
Instalakuntzak.....	3.118	(260)	2.858	0	0	156	3.118	(416)	2.702
Garraio elementuak .....	219	(214)	5	0	(53)	4	166	(166)	0
Higigarriak .....	360	(272)	88	2	0	13	363	(284)	79
Bulegogaiak.....	60	(60)	0	2	0	0	62	(60)	2
Informatika ekipoak .....	371	(283)	88	30	0	31	400	(314)	8
Ibilgetu ezmateriala.....	27	(27)	0	77	(11)	0	16	(16)	0
<b>Guztira</b>	<b>4.155</b>	<b>(1.116)</b>	<b>3.039</b>	<b>111</b>	<b>(64)</b>	<b>204</b>	<b>4.125</b>	<b>(1.256)</b>	<b>2.869</b>

## 9. AURREKONTU PLANTILLA

Pertsona kop.

	___05 abendua___		___Aldaketa___		___06 abendua___	
	Zuzkidura	Erreala			Zuzkidura	Erreala
Goi karguak .....	8	8	-	-	8	8
Auditoretzako aholkulariak.....	8	8	-	-	8	8
Lehendaariaren Idazkaria.....	1	1	-	-	1	1
Lehendakariordearen Idazkaia ....	1	1	-	-	1	1
Auditoreak .....	14	14	-	-	14	14
Auditore atxikituak.....	24	21	-	3	24	24
Letratuak.....	6	5	1	2	7	7
Informatika teknikaria .....	1	1	-	-	1	1
Kontabilitate teknikariak.....	1	1	-	-	1	1
Itzultzailea.....	1	1	-	-	1	1
Informatika laguntzailea .....	1	1	-	-	1	1
Adm. kudeaketaren arduraduna .	1	1	-	-	1	1
Administrariak.....	9	9	-	-	9	9
Administraz. laguntzaileak.....	2(*)	0	-	-	2(*)	0
Administraz. Lag. – telef.....	2(*)	1	-	-	2(*)	1
<b>Gidaria.....</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
Menpekoa.....	1	1	-	-	1	1
	<b>83</b>	<b>76</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>84</b>	<b>81</b>

(\*) Amortizatzeko 3 plaza.

## 10. AURREKONTU ALDAKETAK

Mila euro

2006ko ekitaldian ez da aurrekontuan aldaketarik egin.

## 11. URTEKO KONTUEI OHARRAK

- Herri-Kontuen Euskal Epaitegia Eusko Legebiltzarraren 1/88 Legeak arautzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren jardura fiskalizatzen duen jardute atal goren da.
- HKEEK Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko 31/83 Legeak EA Eren organoentzako finkatutako prozedurak erabiltzen ditu.
- HKEEK 2001ean aldatu egin du jasotako kapital transferentziak PKPn egozteko kontularitzako irizpidea, finantzatzen duten inbertsioa gauzatzen denean sarrera modura erregistratuaz.



## VII. KUDEAKETAREN INFORMAZIOA, 2006-KO EKITALDIA

### VII.1 ORDUEN BILAKAERA

HKEEren zerbitzura diharduen langileriak 2006ko ekitaldian egindako lanorduen norakoa honako hau izan da:

ORDUEN BILAKAERA	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	%
Fiskalizazio proiektuak .....	44.200	41.068	37.795	49.459	46.286	46.540	47.606	2,3
Informatika .....	(2)	(2)	(2)	(2)	(2)	(2)	3.131	-
Zerbitzu Orokorrak.....	27.661	29.355	24.409	18.973	19.930	19.024	22.958	20,6
Fiskalizazio proiektuei egotz ezin dakizkiekeen orduak.....	2.885	3.641	6.001	3.164	4.456	5.822	2.630	(54,8)
Bidaiak .....	3.608	3.275	3.815	3.897	4.024	3.595	6.245	73,7
Euskara.....	2.632	3.235	5.141	4.733	4.103	3.416	2.266	(33,6)
Prestakuntza .....	1.351	699	1.118	1.732	1.306	1.112	1.345	20,9
Baja .....	6.978	2.110	4.128	6.910	7.637	7.459	10.000	34,2
Askotarikoak.....	5.465	6.625	3.648	1.822	2.155	1.857	1.300	(29,3)
Ordaindutako baimenak .....	(1)	(1)	(1)	1.313	1.441	2.146	2.091	(2,5)
<b>GUZTIRA</b>	<b>94.780</b>	<b>90.008</b>	<b>86.055</b>	<b>92.003</b>	<b>91.338</b>	<b>90.971</b>	<b>99.575</b>	<b>9,4</b>

(1) "Askotarikoak" idazpuruan barne hartutako orduak.

(2) Aurreko ekitaldian Zerbitzu Orokorren idazpuruan barne hartutako datuak.

Proiektuetan emandako ordu kopuruak, lan egindako ordu guztien % 48 egiten duenak, % 2,3 egin du gora aurreko ekitaldiarekiko.

Zerbitzu orokorretako orduetan, fiskalizazio lanak egiten ez dituzten langileen orduak barne hartu dira (administrazio laguntzaileak, administrariak, itzultzaileak, kontabilitate teknikariak, informatikaria, menpekoak eta gidariak). Ordu hauek gehitu egin dira gaixoaldi luzeko bajak ordezkatzeko langileria kontratatu behar izan delako.

Egindako bidai orduak ekitaldi bakoitzean fiskalizazioa programatu den entitatearen kokalekuaren arabera da, aurreko ekitaldian egindakoekiko % 73,7 gehitu dela.

Fiskalizazio proiektuei ezargarriak ez zaizkien orduak, lanak, analisiak eta azterlanak, txosten juridikoak e.a. egiten emandako orduak dira, urteroko lan programan jasotako fiskalizazio proiektu jakin bati ez dagozkionak. Aurreko ekitaldian egindako orduekiko % 55 murriztu dira. Aurreko ekitaldian TeamMate auditoriako erreminta ezartzen ordu asko eman ziren, aurten egin ez direnak, ezarpena orokorra izan delako.

Bajako orduak Lanerako Ezintasun egoerei eta amatasun baimenetarako lizentziei dagozkie. Azken hauek 1.050 ordu egin dituzte, idazpuru honetan guztira jasotako 10.003 orduetatik. 2006an bajan 1.000 ordu baino gehiago egin dituzten lau langile daude, horietako hiru zerbitzu orokorretan daudenak.



Ordaindutako baimenetara emandako orduak % 2,5 murriztu dira aurreko ekitaldiarekiko eta nagusiki, mediku kontsultetara joateko baimenei eta gaixotasun larriko senitartekoak zaintzeko Lan Baldintzak Arautzen dituen Erabakiaren ondorioz emandako orduei dagozkie.

Hona hemen ohiko txostenetan egindako orduen bilakaera, gogoan hartuta 1999-2004ko ekitaldietako kontuei dagozkien txostenen egiazko orduak eta 2005eko ekitaldirako aurrekontu egindakoak:

ORDUEN BILAKAERA	FISKALIZATUTAKO EKITALDIA						
	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005 (*)
EAeren Adminis. Orokorra .....	4.926	5.308	7.986	5.329	5.271	6.725	6.610
EAeren Erakundeen Administrazioa (**)	-	-	-	-	2.950	3.868	-
Osakidetza.....	3.449	3.910	2.364	858	-	-	-
Arabako Foru Aldundia.....	1.980	1.936	3.333	4.020	4.224	4.681	3.150
Bizkaiko Foru Aldundia .....	4.373	3.630	5.019	4.793	5.067	4.892	4.030
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	2.864	3.402	3.557	3.311	3.563	3.966	3.800
Udalen Diagnostikoa.....	2.443	3.511	2.548	1.055	1.167	1.345	1.300
Euskal Herriko Unibertsitatea.....	2.775	851	2.333	1.326	2.935	-	1.400

(\*) Aurrekontu egindako orduak.

(\*\*) 2003ko ekitaldiari dagokionez, lanaren zabalak Erakunde Autonomoak besarkatzen ditu; 2004koak, gainera, sozietate publikoak eta entitateak, fundazioak eta Osakidetza barne hartzen ditu.

Lan hauetan sartutako orduen gora-behera Lanerako Planean adostutako lan berariazkoak txostenetan barne hartzarekin dago lotua; gainerakoan, egonkortasun ildoari eusten zaio.



## I. INTRODUCCIÓN

La Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, dispone que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas controlará la actividad económica de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, la que determina la configuración básica del mismo, estableciendo que será mediante una Ley del Parlamento Vasco la que creará y regulará la composición, organización y procedimiento de sus funciones, fiscalizadora y jurisdiccional.

Partiendo de estas premisas, se aprobó la Ley 1/1988 de 5 de febrero por la que se crea el Herri Kontuen Euskal Epaitegia/ Tribunal Vasco de Cuentas Públicas como órgano propio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dependiente directamente del Parlamento Vasco. En el ámbito de sus competencias tiene el carácter de órgano supremo fiscalizador de las actividades económico-financieras y contables del sector público vasco y ejerce sus funciones en la Comunidad Autónoma por delegación del Parlamento Vasco.

El Tribunal está compuesto por siete miembros elegidos por el Pleno del Parlamento con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus componentes estando su estructura formada por los siguientes órganos:

- Presidencia
- Vicepresidencia
- Pleno
- Secretaría General

El ámbito y extensión del control del Tribunal abarca a todas las Instituciones que integran el sector público vasco, esto es:

- Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Cuentas de los Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Las Juntas Generales y las Diputaciones Forales de cada uno de los Territorios Históricos y los Entes Institucionales y Sociedades Públicas de ellos dependientes.
- Las Entidades Locales y los Entes Institucionales y Sociedades Públicas de ellos dependientes.
